



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2016ko ekainaren 23a

91. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

—Foru Legea, Lehiakortasunari laguntzeko neurri berrietarako kreditu berezia emateari buruzkoa. Osoko Bilkurak onetsia (2. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxe publiko eta pribatuetan eskolatzeari buruzko arauak alda ditzan, ekitatearen, sozializazioaren eta diskriminazio-ezaren irizpideak baliatuta. Osoko Bilkurak onetsia (4. or.).

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da aintzat har eta abian jar dezan “Helburua: batere lan istripurik ez” izeneko plan bat. Osoko Bilkurak onetsia (5. or.).

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Enpleguaren Kalitatearen aldeko Plan bat presta dezan eta Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzaitzaren jarduketak gehitu ditzan. Osoko Bilkurak onetsia (6. or.).

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Aniztasunerako Arretaren Plan Estrategikorako proposamen bat aurkeztu eta hezkuntza komunitatearekin eztabaida dezan, eskola inklusibo baten esparruan. Osoko Bilkurak onetsia (6. or.).

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Lanbide Heziketari eta enplegu politikei modu bateratuan ekin diezaien eta Lanbide Heziketako ikastetxe integratu berri bat eraiki dezan Baztan-Bidasoa-Urdazubi-Zugarramurdi eskualderako. Osoko Bilkurak onetsia (7. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako irakaskuntza itunduko irakasleen eta irakasle ez diren langileen soldata % 1 igo dezan. Osoko Bilkurak bazter utzia (8. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da pizgarriengatikoko kenkarietarako baldintzak hobetu ditzan sozietateen gaineko zergan, babes-jardueretarako. Osoko Bilkurak bazter utzia (8. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Ekonomia Sozialari buruzko Batzorde Berezi bat era dezan. Mozioa erretiratzea (8. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Legea, Lehiakortasunari laguntzeko neurri berrietarako kreditu berezia emateari buruzkoa.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2016ko ekainaren 16an egindako Osoko Bilkuran, honako foru lege hau onetsi zuen: "Foru Legea, Lehiakortasunari laguntzeko neurri berrietarako kreditu berezia emateari buruzkoa."

Legebiltzarreko Erregelamenduko 146. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2016ko ekainaren 17an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Foru Legea, Lehiakortasunari laguntzeko neurri berrietarako kreditu berezia emateari buruzkoa

ZIOEN AZALPENA

Gaur egungo egoeran, Nafarroako ekoizpen sektorearen lehiakortasunari laguntzeko neurrien esparrua handitzeko premia dago. Horretarako, beharrezkoa da, besteak beste, enpresa kudeaketaren arloan bikaintasuna sustatzeari bultzada ematea, gazteei beraien enpresak sortzen eta zabaltzen errazteko ekintzetan laguntzea, eta norberaren bizitza, lana eta familia bateratzearen alde egitea.

Kudeaketaren bikaintasunari dagokionez, ez dugu ahanzi behar azken hamarkadetan Nafarroako enpresek ahalegin handia egin dutela bikaintasuna lortzeko bidean, zenbait kontzeptu jorratuz: enpresaren gizarte erantzukizuna, erabateko kalitatea edo berrikuntza. Nolanahi ere, aurrerakuntzak gero eta azkarragoak eta lehia eta globalizazioa gero eta handiagoak direnez, beharrezkoa da lehiakortasuna hobetzen segitzea enpresen bikaintasunaren bidez. Hori dela eta, kudeaketa hobetu beharra dago, enpresen produktuak edo zerbitzuak kalitatezkoak izatea ez ezik beste arlo batzuen kudeaketan ere aurrerapausoak egiteko, esate baterako, pertsonen, berrikuntzaren edo talentuaren kudeaketaren arloan. Gogoeta horren

ondorioz, egoki ikusten da "Kudeaketa aurreratua- ren eredu" izeneko zabaltzea, hura hedatuz eta prestakuntza emanez, ebaluazioa eginez enpresetan eta ezartzen lagunduz. Era berean, kudeaketarako bikaintasunaren ereduak txertatzeak dakartzan onurak ezagutzera emateko xedeaz, Nafarroako Bikaintasunaren Saria sustatzen da. Horretarako Nafarroako Bikaintasunerako Fundazioaren laguntza dugu.

Bestetik, ekintzaitzaren errealitateak gero eta toki zabalagoa du gazteen artean, batez ere haietako asko eta asko langabezian daudelako. BAiren datuen arabera, 2015eko laugarren hiruhilekoan 25 urtez beherakoen artean langabeek % 46,5 egiten dute, eta gehiago dira gizonak (% 51,7) emakumezkoak baino (% 40,6); hori dela eta, ekintzaitzaren aukera oso erreala da besteren konturako lanarekin alderatuta. Beraz, Nafarroako gazteengan duen eragina aintzat hartuta, egokia da Nafarroako Enpresaburu Gazteen Elkarteak ekintzaitzarekin lotuta bultzatzen dituen ekintzei laguntzea.

Beste alde batetik, norberaren bizitza, lana eta familia bateratzea garrantzi handiko elementua da, zeinak laguntzen baitu, batetik, enpresen lehiakortasuna, prozesuen kalitatea eta lan giroa hobetzen, eta, bestetik, langileen ongizate pertsonala, familiakoa, profesionala eta soziala hobetzen, haien motibazioa eta enpresaren helburuekiko konpromisoa ere handitzen dituen heinean. Nafarroako Emakume Enpresari eta Zuzendarien Elkarteak sustatzen duen "Reconcilia" programa gakoa da neurri horren alde egiteko.

Helburu horiek erdiesteko modurik eraginkorrena, Nafarroan dagoeneko eraturik dauden entitate batzuei laguntzea da: aspaldian eremu horietan puntako jarduera betetzen dute, ordezkaritza zabala dute eta beste pertsona batzuk sartzeko irekita daude. Entitate horiek hauek dira: Nafarroako Bikaintasunerako Fundazioa, Nafarroako

Enpresaburu Gazteen Elkartea eta Nafarroako Emakume Enpresari eta Zuzendarien Elkartea.

Neurri horiek ezartzeko, ordea, beharrezkoa da aurrekontuko kontsignazioa egitea 2016ko ekitaldirako Garapen Ekonomikorako Departamentuan. Horrenbestez, kreditu berezi bat eman beharra dago, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko abenduaren 26ko 13/2007 Foru Legeko 48. artikuluan ezarritakoarekin bat. Kreditu hori departamentu horren beraren beste kreditu batzuk erabiliz finantzatuko da, 2016an osorik edo zati batean beharko ez direnak hain zuzen. Plan Estrategikoak egiteko gastuen kontu-sailaren kasuan, lan horiek Administrazioaren baliabide berekiekin betetzen ari direlako. Eskualdeetako Plan Estrategikoen esparruko inbertsio proiektuetarako kapital transferentzien kontu-sailaren kasuan, berriz, 2016an ez dagoelako aurreikusirik kapital transferentziak beharko dituen inolako inbertsiorik egitea.

Era berean, foru lege honek, kontu-sail izendurak sortuz, eragile horiei laguntzak zuzenean emateko gaitzen du, Diru-laguntzei buruzko azararen 9ko 11/2005 Foru Legearen 17.2.a) artikuluan xedatutakoarekin bat.

1. artikulua. Kreditu berezi bat ematea.

220.000 euroko kreditua ematen da, Garapen Ekonomikorako Departamentuaren beharrei 2016ko ekitaldian erantzuteko.

Kreditu hori aurrekontuko kontu-sail hauetan aplikatuko da:

Kontu-saila	Zenbatekoa
810009 81310 4819 422204 Nafarroako Bikaintasunerako Fundaziorako transferentzia, kudeaketaren arloko bikaintasun ekintzetarako.	100.000 €
810009 81310 4819 422205 Nafarroako Enpresaburu Gazteen Elkarterako transferentzia, ekintzailatza ekintzetarako.	60.000 €
810012 81500 4819 494116 Nafarroako Emakume Enpresari eta Zuzendarien Elkarterako transferentziak, Reconcilia programaren kudeaketarako.	60.000 €
GUZTIRA	220.000 €

2. artikulua. Kreditu bereziaren finantzaketa.

Kreditu berezi hau aurrekontuko kontu-sail hauen kargura finantzatuko da:

Kontu-saila	Zenbatekoa
810009 81310 2276 422203 Plan estrategikoak	20.000 €
810009 81310 7609 422200 Eskualdeetako plan estrategikoak	200.000 €

Azken xedapen bakarra. Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxe publiko eta pribatuetan eskolatzeari buruzko arauak alda ditzan, ekitatearen, sozializazioaren eta diskriminazio-ezaren irizpideak baliatuta.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2016ko ekainaren 16an egindako Osoko Bilkuran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxe publiko eta pribatuetan eskolatzeari buruzko arauak alda ditzan, ekitatearen, sozializazioaren eta diskriminazio-ezaren irizpideak baliatuta."

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Honakoa du testua:

"1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxe publiko eta pribatuetan eskolatzeari buruzko arauak alda ditzan, ekitatearen, sozializazioaren eta inolako inguruabarrengatik diskriminaziorik ezaren irizpideak baliatuta; eta, halaber, prozedura bat ezar dezan, gaur egun ikastetxe jakin batzuetan dauden ikasle-konzentrazioak zuzentze aldera.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du ikasleak hezkuntza ez-unibertsitarioko Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxe publikoetan eta pribatu itunduetan onartzeari buruzko araudia alda dezan, ikasleak onartzeari buruzko irizpide arruntak ezarriz, zeinetan lehenetsiko baita ikasleak eskolatzeari beren etxetik gertu dagoen ikastetxe publiko batean eta beren familiak aukeratutako hizkuntz eremuan, eta, halaber, irizpide arruntak ezarriz, aipatu ildotik doan diskriminazio positibo nabarmen bat ahalbidetzeko.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du ikastetxeen eragin eremuak ezartzen dituen eskolatzeari buruzko araudia alda dezan, eskolatzeari buruzko arauak alda ditzan, ekitatearen, sozializazioaren eta diskriminazio-ezaren irizpideak baliatuta."

ikastetxeak sustatze aldera, ingurune horretan esku hartu eta parte hartu ahalko dutenak.

4. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du eskolatzeari buruzko arauak alda ditzan, ekitatearen, sozializazioaren eta diskriminazio-ezaren irizpideak baliatuta."

5. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du prozedurak ezar ditzan, berandu sartu diren ikasleak aldi baterako eskolatzekoak eta aukera emanen dietenak hurrengo ikasturtearen hasieran ikastetxez aldatzeko.

6. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du alda ditzan 0-3 urteko ikasleak ikastetxe publikoetan onartzeko irizpideak, halako moduan non langabezia dauden familiak ez diren kalteturik suertatuko, lana duten familien aldean."

7. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du eskolatzeari buruzko araudia alda dezan, kontuan hartuz, eskaerak ugariagoak badira eskueran dauden ikaspostuak baino, honako erabakitzeari buruzko irizpide hauek erabiliko direla soilik: familiaren bizilekuaren hurbiltasuna, edo bestela, eta justifikatuz, gurasoen edo tutoreen lantokiarena; anai-arrebak izena emanda izatea eskatutako ikastetxean; bestelako arrazoi sozial batzuk, hala nola familia ugaria edo hezkuntza-premia bereziak izatea; justifikatu egin beharko direnak eta batzordeak baloratuak izan, aurkeztutako informazio eta/edo dokumentazioaren arabera. Prozesuan beste edozein puntu osagarri ezabatuko da."

Iruñean, 2016ko ekainaren 17an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da aintzat har eta abian jar dezan “Helburua: batere lan istripurik ez” izeneko plan bat.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2016ko ekainaren 16an egindako Osoko Bilkuran, ondoko erabakia onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da aintzat har eta abian jar dezan ‘Helburua: batere lan istripurik ez’ izeneko plan bat”

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Honakoa du testua:

“1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du aintzat har eta abian jar dezan “Helburua: batere lan istripurik ez” izeneko plan bat, enpresak bultzatuko dituen lan-istripuak gutxitzeko edo desagerrarazteko helburua daukaten neurriak ezartzera. Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuak sustatu beharko du plan hori, eta honako hauek bilduko ditu bere jarduketan artean:

a. Txosten bat prestatzea, laneko arriskuen prebentzioaren arloko legedia Nafarroako enpresa eta lantoki guztietan modu formalean ez ezik materialki eta eraginkortasunez ere betetzeari buruzkoa.

b. Enpresek, sindikatuek, langileek eta edozein interesdunek laneko arriskuen prebentzioaren arloko legedia eraginkortasunez aplikatzea lortze aldera egiten dituzten proposamenak biltzea.

c. Laneko arriskuen aurkako babesa hobetu eta handitzen duten gomendioak eta proposamenak egitea.

d. Aplikatu beharreko araudiaren hitzez-hitzekotasuna betetzeaz gain, c) puntuan adierazitakoaren arabera laneko arriskuen prebentzioaren arloko berariazko legedia hobetzeko bide gisa aurkezten diren gomendioak eta proposamenak aplikatzen dituzten enpresak eta lantokiak aitortzea.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Lan Ikuskatzaileen Kidegoa behar beste baliabide teknikoaz eta giza baliabidez horni dezan, zerbitzua eraginkorragoa izan dadin eta halatan kontrol handiagoa egin dadin istripu-tasaren jatorrian dauden laneko baldintza-narriadurako egoeren gainean.

3. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzailetzaren Sistema antolatzaren duen uztailaren 21eko 23/2015 Legearen III. tituluko III. kapitulua alda dezan, Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzailetzako agintari autonomikoei (teknikariak) eskumen gehiago izan dezaten: exekutiboak, laneko arriskuen prebentzioaren arloko espedienteak ofizioz sustatzekoak, eta aplikatu beharreko araudiaren urraketak salatzekoak”

Iruñean, 2016ko ekainaren 17an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Enpleguaren Kalitatearen aldeko Plan bat presta dezan eta Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzailetzaren jarduketak gehitu ditzan.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2016ko ekainaren 16an egindako Osoko Bilkuran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Enpleguaren Kalitatearen aldeko Plan bat presta dezan eta Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzailetzaren jarduketak gehitu ditzan"

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Honakoa du testua:

"1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Enpleguaren Kalitatearen aldeko Plan bat presta dezan gure Komunitateko eragile ekonomiko eta sozialekin lankidetzan, Nafarroan agintekeriak, ezkutuko ekonomia eta aitortu gabeko enplegua uxatuko dituen.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du kanpainak egin ditzan, Nafarroako gizarte osoa sentsibilizatze aldera aitortu gabeko enpleguaren ondorio negatiboekin eta horretara joz gero aplikatu daitezkeen zehapeneekin.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du honako hauei lotutako

datu guztiak argitara ditzan: gure Komunitatean dagoen ezkutuko ekonomia, eta ekonomia mota horren eragina kolektiboan, sektoreen edo jardueraren arabera, baita eremu geografikoen arabera ere; problematika horrek bereziki zer esparru utkitzen dituen bereziki nabarmenduko da.

4. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzailetzaren jarduketak nabarmen gehitu ditzan Nafarroako Foru Komunitatean, lanaren eta Gizarte Segurantzaren esparruko araudi osoa betetzen dela kontrolatzeko, eta, halaber, horretarako behar diren giza baliabideak eta baliabide materialak ugaritu ditzan.

5. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du lanaren eta Gizarte Segurantzaren araudiaren esparruan arau-hauste oso larriengatik ezarritako zehapen irmoen berri eman dezan, dagoen berriazko araudiak ezartzen duen moduan, ahal den neurrian etorkizuneko arau-hausleei horrelakoetarako asmoa kentzeko."

Iruñean, 2016ko ekainaren 17an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Aniztasunerako Arretaren Plan Estrategikorako proposamen bat aurkeztu eta hezkuntza komunitatearekin eztabaida dezan, eskola inklusibo baten esparruan.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2016ko ekainaren 16an egindako Osoko Bilkuran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Aniztasunerako Arretaren Plan Estrategikorako proposamen bat aurkeztu eta hezkuntza komunitatearekin eztabaida dezan, eskola inklusibo baten esparruan"

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako

Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Honakoa du testua:

"1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du aurkez dezan, bai eta hezkuntza komunitatearekin eta zerikusia duten eragile guztiekin eztabaida dezan ere, Aniztasunerako Arretaren Plan Estrategikorako proposamen bat, eskola inklusibo baten esparruan.

2. Aniztasunerako Arretaren Plan Estrategiko horrek honako hauek bilduko ditu, gutxienez:

a. Hezkuntza inklusiborako eta hezkuntza bereziko berariazko mapa bat, ezarpen-fase bakoitzean zuzkidurak planifikatzeko eta baliabide-beharrari erantzuna emateko.

b. Inbertsio-planerako proposamen bat, funts publikoen bidez mantentzen diren hezkuntza bereziko ikastetxeetarako.

3. Epe bat ezarriko da ikasturte honetan egin dadin, halako moldez non 2017-2018 ikasturtean praktikara eramaten hasi ahalko baita.

4. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua premiatzen du Haur, Lehen eta Derrigorrezko Bigarren Hezkun-

tzako ikasleen aniztasunari nola erantzun arautzen duen araudian sar ditzan egitura-, antolamendu- eta curriculum-neurriak, ikasle guztien eskola-arrakasta errazte aldera, eta bereziki, arrazoi sozioekonomikoak, kulturalak, sexu-generikoak eta lurralde-arrazoiak direla-eta ezberdintasunak dituzten ikasleena.

5. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua premiatzen du prozedura bat taxutu eta aurrera eraman dezan kolektibo profesionalek eta sozialek parte har dezaten lehendabiziko puntuak aipatzen duen Aniztasunerako Arretaren Plan Estrategikoaren taxutze, garatze eta jarraipen prozesuan."

Iruñean, 2016ko ekainaren 17an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Lanbide Heziketari eta enplegu politikei modu bateratuan ekin diezaien eta Lanbide Heziketako ikastetxe integratu berri bat eraiki dezan Baztan-Bidasoa-Urdazubi-Zugarramurdi eskualderako.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2016ko ekainaren 16an egindako Osoko Bilkuran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Lanbide Heziketari eta enplegu politikei modu bateratuan ekin diezaien eta Lanbide Heziketako ikastetxe integratu berri bat eraiki dezan Baztan-Bidasoa-Urdazubi-Zugarramurdi eskualderako."

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Honakoa du testua:

"Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

1. Lanbide Heziketari eta enplegu politikei modu bateratuan ekin diezaien eta behar diren neurriak abiaraz ditzan.

2. Lanbide Heziketako ikastetxe integratu berri bat eraiki dezan eskualdearen erdigunean.

3. Lanbide Heziketako ikastetxe berriak eskualdeko errealitate sozioekonomikoa kontuan izan dezan, bertako beharretara egokitzen den kalitatezko prestakuntza eskainiz.

4. Lanbide Heziketako ikastetxe berriak euskarazko eskaintza berma dezan, inguruko herrien ezaugarri eta behar soziolinguistikoak kontuan hartuz"

Iruñean, 2016ko ekainaren 17an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako irakaskuntza itunduko irakasleen eta irakasle ez diren langileen soldata % 1 igo dezan.

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA

Alberto Catalán Higuera jaunak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako irakaskuntza itunduko irakasleen eta irakasle ez diren langileen soldata % 1 igo dezan".

Legebiltzarreko Osoko Bilkurak, 2016ko ekainaren 16an egindako bilkuran, erabaki zuen aur-

keztutako mozioa baztertzea. Mozio hori 2016ko ekainaren 10eko 84. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2016ko ekainaren 17an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da pizgarriengatiko kenkarietarako baldintzak hobetu ditzan sozietateen gaineko zergan, babes-jardueretarako.

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA

Luis Casado Oliver jaunak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da pizgarriengatiko kenkarietarako baldintzak hobetu ditzan sozietateen gaineko zergan, babes-jardueretarako".

Legebiltzarreko Osoko Bilkurak, 2016ko ekainaren 16an egindako bilkuran, erabaki zuen aur-

keztutako mozioa baztertzea. Mozio hori 2016ko ekainaren 14ko 86. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2016ko ekainaren 17an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Ekonomia Sozialari buruzko Batzorde Berezi bat era dezan.

MOZIOA ERRETIRATZEA

Legebiltzarreko Garapen Ekonomikorako Batzordeak, 2016ko ekainaren 1ean egindako bileran, adierazi zuen jakinaren gainean zegoela Ana María Beltrán Villalba andreak aurkezturiko mozioa erretiratu izanari zegokionez. Mozioaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen zen Eko-

nomia Sozialari buruzko Batzorde Berezi bat era zezan, eta 2016ko otsailaren 19ko 21. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2016ko ekainaren 14an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza